

NIETZSCHE-REN ITZAL ARGIA

OHAR OROKOR MIRANDERI SARRERAKOAK

Joxe Azurmendi

Saio bat argitara emana badaukat Miranderi buruz, *Mirande eta kristautasuna*, tradizio moral kristauan ohituta daudenentzat. Bigarren bat, *Schopenhauer, Nietzsche, Spengler, Miranderen pentsamenduan* tradizio filosofikoan daudenagoentzat, pentsatu nuen. Oraingo honekin bion artean zubi bat edo, izan litekeena, entseiatu nahi nuke, Miranderi sarrera orokor gisa, gure inguruan ohizkoagoak diren irakurgai edo Autore batzuetatik.

Mirandek zera esan digu: [1] Euskal Herria krisian dago; krisian dago, dekadentzian dagoelako; dekadentzian dago, kristautasunak ustelarazi duelako. [2] Bere burua berriz altxatzeko: kristautasunari uko egin behar dio; "moral" pagano batez behar du berriro armatu, hots, indarrarena eta garaipenarena bakarrik den "jaunen" moraltasun (kontzientzia) batez.

Nola sortu da, heldu da, pentsamolde hori? Nondik dator, zein izan da testuingurua?

[1: *Ortega eta Baroja Miranderen lagun*] Miranderen pentsamenduan sartzen hasteko, izkributxo bi aipa niezaizueke beharbada lagungarri, nahi baduzue nahikoa desberdinak bata eta bestea: Pio Barojaren *La leyenda de Jaun de Alzate* eta J. Ortega y Gasseten *Mirabeau o el político*, 1922ko eta 1927koak, bion aipatzeko ordena horretan.

Baroja eta Ortega? Bai. Bestela ez dut uste zerikusi handirik izan dezaketenik batak bestearekin, egungo irakurleari, garai bateko kezka batzuk eta planteamoldeak egundartzea, erraz diezaiketela baino, Miranderen mundua ulertzea beraz, bildur izan bait gintezke, bitartean hori bera zerbait estraino ez ote zaion ari geratzen irakurleria gazteenari. Gauden, beraz, biokin.

Pio Baroja, ez dago justifikatu beharrik, zergatik hartzen dudan lagungarritarako Miranderen ulerpide hobearen: Mirandek berak aipatzen zuen. Ortega y Gassetek, hautapen franko arbitrarioa izan da, ez du justifikazio berezirik: ideia batzuen "arruntasunaren" adibide gisa aukeratu dut soil-soil, eta Estatu espainoleko (eskola

espainoleko, alegia) irakurle gazteagoan pentsatuz gainera¹. Ideia ugari bait dago, orain laburtasunaren amorez Nietzscheren tradizioa esango diogunean, guztiz arrunta izan dena idazle eta pentsatzaile bestela hagitz desberdinotan, mendearen hasieratik gutxienez bigarren mundu gerraren ondorenera. Horietakoak dira Miranderen ideia asko eta asko. Horiekin ez dago noski zergatik derrigor bat etorri. Baina apenas dago zergatik horiek Miranderen luman, beste edozeinenetan baino eskandalagarriago edo faxistagotzat eduki ere.

Arestiren "marxismoan" baino nik ez bait dut gehiago sinesten Miranderen "faxismoan", h.d., literaturan ez dago ikusten dena baino besterik zergatik ikusi, ez sinestu, ez zergatik inoren gain interpretatu. Testuan dagoena dago. Eta zerbait egon daitekeela guztiz ukatu gabe, nonbait edo nolabait egon (hurbiltasun batzuk edo), marxismoaren eta faxismoaren fantasma horiek eduki ditzakete tremendismo gutxiagorekin beren esplikazioak, nahikoa sinpleak seguruena, nire ustez behintzat, bata marxista eta bestea faxista bihurtu gabe, literatoak alegia, beren obrak ulertzeko behar den adinakoak esplikazioak, ez beren bizitzak, edo bizitzako eperen batzuk, nolabaiteko iharduerak edo hala-holako imintzioak.

[2: *krisiaren kontzientzia larri bat*] "La Revolución Francesa fue un completo fracaso", deritzo aipatu dugun idazkitxoan Ortega y Gassetek.

Egia da eta ez da egia. Frakasatzea erlatiboa da. Nahi zuena, burgesia frantsesak lortu zuen. Esaten zuena da, ez zuena lortu. Botere politikoa, azoka libre bateratua, lehia librearen eta eske-eskintearen legea produkzioan eta banakuntzan, bai horixe lortu zituela horiek denak. Esaten zituen printzipio handiak ez zituen eskuratu: nazio guztiaren askatasuna, berdintasuna, anaitasuna. Baina hori frakasua bada, frakasatuta jarraitzen dugu oraindik.

Diferentzia batekin. Orain [a] *politikan* dagoen diskurtsuak dio, paradisuari ez gaudela, baina oso ondo gaudela, kasik Leibniz-en "mundu posibletarik hoberenean" alegia, edo gutxien txarrean, hori omen bait da demokrazia. Eta [b] *kulturalki* oraingo diskurtsuan adio egin zaie printzipio handiei, gizarte berri baten "utopiei", etab., *indibiduoaren aroan eta in La era del vacío* gaude (Lipovetsky), kontent gainera hortxe gaudelako, aisian eta konfortean (geu aisian eta konfortean bagaude!): orain nahi dena da lasai, ez "arriskuan bizi", Nietzsche-k (*Jakintza alaia*, § 283) belaunaldi pare batentzat formula eman zuen legez.

1 Eskola frantsesekoak aisa erremedia lezake diferentzia, bere gogokoago beste edozein bere kisa hautatuz, literatura espainolerako Sobejanorena dagoen bezala, frantseserako daudenak lagun harturik: BIANQUIS, G., *Nietzsche en France*, 1929. BOUDOT, P., *Nietzsche et l'au-delà de la crise. Nietzsche et les écrivains français de 1930 à 1960* 1970.

Izan ere, gutxienez 1900-1968 arteko ezer ezer ulertu nahi nahi bada Europan, berdin da eskuineko zein ezkerreko mugimendu politikoak, artistikoak ala literarioak, baina orobat Euskadin aranismoa, *Euskaldunak edo Garoa*-ko ruralismoa, edo "euskal pintoreak" ohi deritzenen pintura, gerraurreko sozialismoa eta komunismoa, kooperatibismo arizmenditarra gero, edo gure Mirande: kontuan eduki beharko da fenomeno guztion oinarrian beti, [b] mendebaleko *kulturaren* krisi kontzientzia larri bat dagoela, ebidentziarainoko ziurtasunarekin, izugarritzko antsi-larriarekin, eta [a], *politikan* orobat, "demokraziaren" frakasuaren kontzientzia beste hainbestekoa eta berdin ikaratua.

Utz dezagun krisi kulturalaren estura. Orain Gobernuak, literatoak, politiko arrazoizkoak, Aita Santua bera, problemak "desdramatizatzen" eta jendea lasaitzen ahalegiten dira, estabilitatean eta orekan gaudela konbentziturata bizi behar dugu denok: problematxoren batzuk badaude (ekonomian batik-bat, petrolioarengatik piska bat, ETArengatik bestea), baina bestela mendebaldea ez dago inola ere krisian, egonkor eta sendo dago, beste "ostiral beltzik" ez zaigu buru gaineratuko. Gehiago, garaipen baten euforia ezin disimulatua bizi du "kultura europar" klasikoak: ideia "faxistek" ikusi bait dugu nora eraman zuten; eta ideia "komunistek" inora ez bait zuten eramaten, begira komunistak nola itzultzen ari diren azkenean berriro mendebaldeko tradizio jatorrera.

Gaur-egun ezer ez dago jendearen buruan hain tinko, krisi kulturalik ez dagoela baino: hau dago eta honek ez du beste alternatibarik. Atzo, aldiz, ezer ez zegoen hain garbi, mendebaldeko kulturak azkenbetiko porrot egin zuela eta laster baino lasterrago alternatibaren bat aurkitu behar zela baino. Atzo, pentsatze ororen presupostua krisiaren ziurtasuna eta ebidentzia kolektiboa zen; gaur, krisirik ezaren kredo irmoa eta garamatzen untzia osasunean fede osoa. Atzo pentsa zitekeen oraindik portu zaharra porrokatu eta berria eraikitzeko; gaur, onenean ere, moilarriak dekoratzeko eta masta puntetan kolorinezko banderatxoak eskegitzeko. Ez da zilegi mundu honi alternatibarik bilatzea.

Baina zer axola zaigu guri, lau katu euskaldun honi, mundu handi guzti horretan zer dagoen pentsatzea zilegi momentu bakoitzean? Nahi dugun bezala eta nahi duguna, pentsatu nahi dugu guk. Baina –ahal izaten ote da horrelakorik?

La leyenda de Jaun de Alzate-k horixe esan nahi du: nahi dena izango da, kulturalki euskalduna "ez da mundu honetakoa".

[3: *eskeptizismo batekin munduari barrera kanpotik begira*] Gauzen pentsatzaile eta munduaren miatzaile bezala, hau da, kulturalki, euskaldunok baditugu desabantaila askoren artean abantailatxo batzuk, bazterrak aurrera begiak irekita ibiltzeko. Mundua ez

dago inon guretzat eginda, ez daukagu zergatik gurea balitz bezala defendatu, zergatik ezertan fededun izan eta martiri. Guretzat prantatu ez zen bazkaria da. Nahitaez judu errantea izango da euskalduna, arrotz hein batean edonon, baina Espainian ez derrigor etxeanago Frantzian edo Ingalaterran baino, demokrazian ez-erosoago sentituz sozialismoan baino, edo viceversa, nola eta ez dion behintzat bihotz barnean bere arrotzasunari (euskalduntasunari) uko egiten, dagoen tokian arras berdindu eta integratzeko, tokian tokiko bihurtuz eta *ubi bene ibi patria*. Egia da, lana egiteko, ingeniaria izateko, denda bat edukitzeko, salerosketan aritzeko, ez du izango traba berezirik (ezta Estatuaren funtzionaria izateko ere). Baina ofizialtasunean aurkituko dituen moralak, hizkuntza, kultura, Estatu-eredua, demokrazia, sozialismoa, birtuteen eta bizioen taula, denak egongo dira euskalduna eta euskaldunaren antzekoak ezertarako aintzakotzat hartu gabe pentsatuta. Modak zein moduak, inoiz ez dira gu bezalakoei begira pentsatu izan Estatu-gizarte modernoetan, "guztiei" begira baizik, h.d., kontsumitzaile standardari, masaformeari. Orduan, apenas izaten dugu geuk bereziki heretikoak izan beharrik, geure buruen jabe eta munduan piska bat eszeptiko izate hutsarekin, heretiko geratzeko, alegia, ezinbestean homosexual, zismatiko, desheredatu, agote, judu-masoniko, ijito buhame eta "munduko madarikatu guztiekin" batera anatematan erortzeko: "bestelakoa"ren, "meteko"aren patu gaitzean.

Egoera hori gogorra da materialki, bere modura intelektualki pribilegiatua izan badaiteke ere. Alegia, euskaldunak (eta euskaldunaren antzera dagoen edozeinek: dadila norbait Baionan lesbiana, ala luteranoa Iruñean), bera despribilegiatzen duen sisteman, arinago erreparatzen die sistemaren puntu flakoei, eszeptikoago egoten da harenganako. Berak ere gizarte horretan "karrera egin" nahi baleza, posible du egitea, bai: baina, kondizioa, makurtu eta egokitu egin beharko zaiola "egoera gehiengotarrari", saldoari, hiritar espainol edo frantses uniformatu standard gisa bakarrik egin ahal izango baitu zuzen karrera. Bestela, berriz, ozeano gehiengotarrean ez badu bere nor eta euskalduntasuna galdu eta urtu nahi, bere legearen arabera izaten badu kultura (beti unibertsalak noski!) bereganatu eta aitzinarazi nahi, materialki marginazioko lagunarte kultural txiroagoan kausituko da, estuago, erkinago, irtenbidegabekoago, zailagoan, eta –gura baduzu– baita orohar humanoki ziztrinagoan ere behar bada, ghettotarragoan alegia, itxiago eta kaldarragoan, txikikeria handiz betean, miseriazko, intoleranteagoan, ekonomikoki eta sozialki ere konpentsaziorik apenas gabekoan, asko nahi eta gutxi ahaldunen kofradia kastigatuan. Zailen-zailena soportatzen, euskaltzalearentzat, ez al da izaten euskaltzaleak soportatzea? Minoritarra izatea eta minoria itxian elkar eramatea, soziologia elementala da hori, ezin izan daiteke erraza, minoritateak patologia bezala bakarrik ulertzen eta tratatzen dituen mendean eta kulturaren, eta hori gertatzen da kultura mendebaldar "katolikoan" eta gure mende txit modernoan. Horregatik, euskalduntasunaren gure adurra, intelektualki, esan bezala, geure merezimendu partikularrik gabe, nahitaez gure gizartearen eta

kulturaren aurrean gaitasun kritikoa zorrozterazten digun egoeran ezartzen gaituen arren, materialki hain da krozka eramakaitza, listoenek azken denboran abantaila intelektual hori abantaila material nola bihurtu asmatu bait digute: euskaldun listoetarik listoenen ofizioa, orduan, euskaldunok zein garen tontoak eta lapikoak, kulturgabeko aldeanoak eta fanatikoak, predikatzea bilakatu da, botere modu ofizial guztien bozgorailuen arazoizkotasun indartsuarekin. Horiek lehenago ere zerbaitegatik ziren ezkertiar dialektiko zorrotzak. Inbentuaren eskema bera dialektika handi gabekoa da nolnahi ere: gizarte honek euskaldunak heretikoek marginazio-egoeran jarri baditu, aski da heretikoetatik heretikotara jostatzea, marginatuetatik automarginatzea, ofizialtasunera arrimatzeke, ahal duenak egiazko talentuz eta ezin duenak clown bezala Gorteari gustu emanez, batetik heretikoaren miramendu intelektuala bikoizkorki eta bestetik ortodoxoaren abantaila materialak mendrarik batere gabe gozatzeko.

Begira orain: Mirandek ez zuen haserrea eta samindura besterik irabazi berak barne-
-barneenean maiteenak zituen guztiekin, euskaldunekin, euskaltzaleekin, abertzaleekin. Kritikarik pasionatuena egin zizkion abertzaletasun klasikoari, abertzaletasun berri bat ermetzen hasi zenean, baina hori ez zuen berak inspiratutakotzat ezagutu. Miranderen kasua zinez eta zinezko "heretikoetatik heretiko" batena izan da. Ordea, ez ortodoxia aprobetxategian bukatzeko, baina heterodoxia gorri-gorri totalean eta madarikazioan jarraitzeko, ezin ofizialtasuni arrimatu gabe, bere buruaren inmolazio intelektual eta material erabatekoraino. Mirandek azkeneko ttanttaraino atera dio zukua kupida gabe, paristarraren euskalduntasunak zorrotzu egiten zion bere izpiritu kritikolari. Inork baino mingoskiago ditu pairatu eta ditu salatu euskaldunon estukeria eta abertzaleen zintzokeria, esaterako. Halere Mirande inoiz ez da euskaldunon eta abertzaleen kritikan, Madrili edo Parisi gustua emateko, aritu, ezta emateko moduan ere. Horrek erakusten du intelektualki egiaz kritiko baten eta egoista txiki material ziztrin baten artean funtsezko diferentzia: sensibilitate handi gaitz baten bizi-bortiztasuna versus merkatari arima-tratante baten mainak eta jukutriak. Euskaltzaleek Mirande nola ikusi (gaitzikusi) zuten, orain alde batera utzirik, halere, ezaguna da eta, zer ikusi zuen berak, politikoki?

[4: *Iraultzaren proiektu bi*] Gure belaunaldiari, politikoki, "ezkerra" deskubritzea tokatu zaio, edo nahiago bada, ideologia ezkertiarren eraso tokatu zaio Euskal Herrian jasatea. Liluramenduak edonon egoten dira, ideologiekin ala urrutiko intxaurrekin. Jeneralean, haatik, familia pobreako bere sustrai euskaldunak ahaztu ez zituztenek, ezin izaten zuten soluzio guztiz perfektu eta idealetan errazegi sinestu, edo sinestera heldu zirenei ez zien luzaro iraungo, alegia, lehenengo proletarien borroka eginez gero askatasun nazionala berez zeriola, jabego pribatua ezabatuz gero askatasuna eta berdintasuna ziurtaturik zeudela betiko, eta antzeko beste hamaika kontu.

Esaten da ez omen garelako herri teoriko bat: agian ulertu behar da, perfekzionismo edo handikeria teorikoetan ez garelako fidatzen, mundua beti errazago konpondu delako paperean, baina gero ez du ezertarako balio izan.

Halere, esandako eszeptizismoaren barruan bederik, belaunaldi hori sozialista edo demokrata izan da. Sozialista izatea bere propioa bazuen, demokrata izatea gurasoengandik zetorkion.

Gurasoek demokrazia ezin esan daiteke deskubritu egin zutenik: aspaldidanik egon da hemen oinarri tradizional demokratiko bat (goiko arrazoi berarengatik, oraingo mito-
-desegile horien beharrik ez dugu izan demokrazia horren erlatibismoa erreparatzeko). Baina pentsamendu demokratiko modernoa, Iraultza-kumea, "burgesa" nahi bada, edo errepublikanoa, liberala, hori bai, bere deskubritu zuten, karlistakumeen belaunaldi abertzaleak, eta bere odolarekin defendatu zuen gerra-zelaietan.

Baina kontzeptu hori, hain zuzen -hori genuen beste puntua: krisi *politikoa*-
auzitan zebilen Miranderen garaian eta giroan: auzitan, ez ezkerretik bakarrik jarrita (sozialistek), eskuinetik ere bai.

Hemen, alabaina, tranpa baten eta faltsifikazio historiko izugarri baten biktimak gara. Eta esan egin behar da.

"Iraultza", gure eta gure ondorengo belaunaldiarentzat, borroka proletario eta sozialistarekin asoziatzen dugun kontzeptua da. Baina historikoki iraultzaren kontzeptua burgesiarena eta burgesiaren teorikoa izan da (terminoa bera astronomiatik datorrelarik, "erreboluzioa"). Orain Ortegaren esaldia gogora dezakegu berriro: "La Revolución Francesa fue un completo fracaso". Eta ez Napoleonek iraultza kontrairauli egin zuelako bakarrik, hedatu ere nolabait egin bait zuen. [a] Alde batetik iraultza bide erdian geratu zela eta burutu edo osatu nahiko zukeen mugimendua dago, pentsamendu desberdinekin bere baitan (sozialismo utopikoa, marxismoa, anarkismoa, laborismoa, etab.), "ezkerra" orohar, helburu bezala beti "iraultza osoa" duela, Iraultza Frantsesaren linean, 1968ko maiatzaraino. [b] Linea kontserbakorra daukagu bestetik: Iraultza Frantsesak berehala izan ditu gisa honetako behatzaile eta analistak, Tocqueville bat Frantzian, Burke Ingalaterran, L. von Stein Alemanian. Kontserbatismoak ez du prentsa onegirik (ez zuen behintzat oraintsu arte), baina irakurle euskaldunari -zergatik sentitu beharko luke bere bihotza Iraultza Frantsesarekin identifikaturik?— aski libertate beti geratuko zaio golkoan, autoreon begibideak eta oharrak honetaz-horretaz interesgarriak aurkitzeko. Batez ere ohartzen dugunean, supermoderno eta postmoderno eta progre bezala saltzen zaigun azken-garrai merkaturia asko eta asko, tradizio kontserbakor hobereneko zapi zaharrak

baino ez dela. Eta honekin ez dut negatiboki baloratu nahi, baina alderantziz, geure tradizio zahar mila bider isekatu batentzat bere ohorea errebindikatu. Mirande bane dela.

[5: *iraultzaren proiektu "kontserbakoia"*] Mirande (Unamuno, Baroja, etab. bezalaxe, autore euskotarretan; eta Schopenhauer, Nietzsche, bezalaxe) krisialdiko pentsamenduan kokatzen da eta pentsamendu kontserbakoian (ohart bedi paradoxa: oraingo "progreak" gehien-gehienbat kontserbakoi horiengan inspiratzen dira!).

"Kontserbatzailea" izendapena R. de Chateaubriand-en Pariseko *Le Conservateur* (1818) aldizkaritik ei dator, aitonsema eta bretoina berau, lehen Erromantizismo frantseseko literato gailena. Aurreneko politiko eta teoriko kontserbatore handia, halere, E. Burke izango da (hau, berriz, sortzez irlandarra eta, tradizionalistagatik hain zuzen, irlandarren errebindikazio nazionalisten aldekoa Ingalaterran). Horrekin esantsua dizuet: kontserbatismoa, periferiako eskualde "atzerakoietan" bereziki sendotua egoten zena, razionalismo modernoaren etsaia da, haren ume liberalismoarena orobat, iraultza liberalarena hortakoz. Bizitza politikoaren kontsiderazio mekaniko-razionalistari, organiko-tradizionalista oposatzen dio (nolabait esan: besteak matematikarekin pentsatzen badu, honek biologiarekin pentsatzen du gizartea); gizakiaren eta instituzioen historikotasuna eta garapena denboraren denboran azpimarratzen du beraz (ez instituzioen "arrazoizkotasun" denboragabe abstraktua), etab., ez bait du merezi luzatzea. Razionalismo eta progresismo burgesen etsaia, sozialismo eta anarkismo tankerako demokratismo erradikal eta kolektibismoen arerioa orobat, hainbat eratan erromantizismoarekin guruzta-nahastua, guri mugimendu politiko bezala baino, literario eta kultural bezala interesa dakiguke hemen². Baina gehien-gehiena, beti isiltzen zaiguna, izen horrekin ezinezkoa dirudiena, zera interesatu behar zaigu orain: XIX. mendearen azkenetatik aurrera, jadanik ez bat bakarra, baina iraultzaren gutxienez bi kontzeptu dagoela, ezkerrekoa eta eskuinekoa, edo iraultzaren eredu progresista deritzona eta kontserbakoia. Azkeneko hau, gero gertatu direnak orain alde batera utzirik, iraultza frantsesaren aurkakoa izan den tradizio batean erne arren, zinezko iraultza-proiektu bat izan da, teorikoki eta literarioki bederen. Eta pentsamendu bezala, ezkerretik nahiz geroko "faxismo"etatik bestelakoa eta autonomoa. Gertatu zaiona da, politikoki nagusitu proiektu faxistak egin direla eskuinaren aldetik, eta beste pentsamendu hura, kontserbakoia bai, baina faxista ez zena, ilunpetan geratu dela. Are, polemika antifaxista bizian, bai marxistek eta bai demokrata liberalek, beste gabe faxistatzat edo faxismoaren bide-urratzailetzat jo izan dituzte askotan horrelakoak, kontenplazio gehiegi gabe. Baina ikusiko dugu salaketa modu horiek, Mirandeganaino ezezik, Platon-ganaino hel daitezkeela.

² Aztertu beharko litzateke guzti hori noizpait hobeto, ez dut behintzat gure artean XIX. mende horren ikerketa baliozkorik ezagutzen. Ohartxoren batzuk, baina beste preokupazio batzuekin, ik. litezke, in: *Zer dugu Orixeren alde*, 1977, 35 ss.

Ez dut ikertu eta jakin ez dakit, frantsesek orain "la droite révolutionnaire", alemanek "die konservative Revolution" deritzoten horretako autoreek, zuzenean eraginik izan ote duten Miranderen pentsaeran, eta zein, baietz susmatuko banuke ere: Möller van den Bruck (1876-1925), Ernst Niekisch (1898-1967), Ernst Jünger, etab. alemanen artean. Berak espreski aitortua Nietzsche eta Spengler-en bere ezagutza da (autore alemanetan), eta "ene nietzscheismua"³, nik hori bakarrik aztertu bait dizut. Bestela esanda, Mirande saiatu naiz, Schopenhauer, Nietzsche eta Spengleren tradizioan kokatuz, ulertzen. Baina berauek ere mendebaldearen krisi kultural eta krisi politiko azkenbetiko baten kontzientzia larrituaren markuan egolekutu beharko lirateke.

Espainian larritasun hori 98 ondorengoa bezala jotzen da: Cuba independizatu zenean, espainolitoek, Inperioa akabatu zela eta, mundua akabatu zela, uste zuten. Inperioa ezin bazen, salbatzen ahalegindu beharra zegoen behintzat "izpiritu espainola". "98ko belaunaldiak" hori izango du bere lana: hori da, batez ere, Unamunoren *Vida de don Quijote y Sancho* (beti agertzen da euskaldunen bat indioak salbatzen, etxean kabitu ezin eta, misiolari joanda). Europan ere, ordea, "desde comienzos de siglo el tema de la decadencia está a la orden del día: decadencia de las naciones, *déclin de l'Europe*, decadencia de Occidente, *décadence de la liberté, décadence de la nation française*". Touchard-ek Spengler aipatzen du Alemaniarako, Toynbee Ingalaterrarako, P. Valéry eta Malraux Frantziarako. Baina "el tema de la decadencia (europea o francesa) y el de la humillación, que es su consecuencia, son repetidos con tanta frecuencia que sería fácil multiplicar las referencias"⁴.

Oso egoki ohartarazten du jarraian autore berak: "Las meditaciones sobre la decadencia van unidas a menudo a una reflexión sobre las *élites*. En efecto, el recurso a las *élites* no es exclusivo de la Italia de Mussolini o de la Alemania de Hitler. Antes del advenimiento del fascismo y del nacional-socialismo varios autores, invocando más o menos abiertamente el liberalismo, habían subrayado la distancia que separa a los gobernantes de los gobernados y habían sometido a un nuevo examen los postulados de la democracia liberal". Aipatzen ditu hemen adibide puntarengo gisa: Vilfredo Pareto, Gaetano Mosca, Max Weber eta Roberto Michels. Dena dela, izan liteke interesgarria, baina ez gara puntu honetan pausatuko, arloa ez infinituraino zabaltzeko. Horixe da Miranderen ideien marku orokorra nolahi ere, eta horren agergarri sinpleago bat izan nahi du bakarrik, adibide gisa Ortega eta Barojaren izkribu biren ondorengo azalpentxoak. Bego abisatuta.

Izan ere, euskaldunak badituela, esan dugu, abantailatxo batzuk, independenteago eta libreago pentsatzeko. Eta baditu, edo izan ditzake, bere kondizioaz ohartun bada. Baina,

3 Cfr. *Egan* 1/3 (1962) 7 eta 10

4 TOUCHARD, J., *Historia de las ideas políticas*, 1985, 618 eta 620

besteen moduan eta guztion markuetan desarroilatuko dira orokorki haren pentsabideak: Estatu-gizartetik baino askoz zailagoa bait da norbere denboratik aparte jartzea, libertatean pentsatzeko.

[6: *Barojaren arabera euskal izpirituaren kinka larria*] Jaun de Alzate-ren kasuan seguruena bai, egia izan liteke, Miranderenean baino lehen, bere aurreneko interesa bestelakoa izatea, literarioa baino (dudagarri samarra iruditzen bait zait hori, okerragorik ez esateko). Pio Barojaren Euskal Herriaren ikuskera espresatzen da hor: piska bat, nolakoa ikusten zuen; zerbait gehiago, nolakoa izan zedila, berak opa nahi liokeen, nik uste ("una república independiente: sin moscas, sin frailes y sin carabineros"). Euskal Herri txukun bat.

Caro Barojak honelaxe jakinarazten digu, Pio, zer pentsatzen zuen Euskal Herriaren krisiaz eta geroaz: "Lehenik, *mugatzearen* aldeko zen. Mugatzea zen harentzat [isolatzea uler bedi], zitekeen askatasun-garantiarik bakarra. Estatu handitan, sistema-politiko handitan, erlijio handitan, beste hainbeste askatasunaren etsai ikusten zuen (...). Behin baino gehiagotan adierazi zuen –esaterako– euskaldunek kultur ikuspuntutik behatuta, bereziz joan behar zutela latina edo erromanzea zen edo iduri lezakeen guztitik"⁵.

La leyenda de Jaun de Alzate Euskal Herria itotzea zemaitzen duen modernitatearen parabola bat da. Gauza askori aluditzen zaio (Easoko bizitza urbanoaren erakarmena, tabernekin etab.; industrigintza eta zientzia modu berriak: Orixerena edo bezalaxe, Barojaren Euskal Herri jatorra ere baserritarra da, hiria "mehatxua" da hain zuzen), baina funtsean Euskal Herriko Erdi Aro anakronismoz jositako batean kokaturiko zin-zinezko euskaltasunaren krisia adierazten da (ikerketa historikoan edo baino gehiago, beti ere "intuizioan" fidatuz). Oposizio nagusiaren terminoak euskal paganismo jatorra eta kristautasun arrotz etorkina dira. Polo bion inguruetan biltzen dira gainerako elementuak. Baina egiazko arazoa ez dira behiala zaharreko prozesu ertarotiarak, ezpada orain-oraingoak: "Antes de que llegue la época en que las presas y los saltos de agua hayan desfigurado definitivamente el Bidasoa, el pequeño río de nuestro pequeño país; antes de que los postes sustituyan a los árboles y las paredes de cemento a los setos vivos, y los tornillos a las flores; antes de que no queden más leyendas que las de las placas del Sagrado Corazón de Jesús y las de la Unión y el Fénix Español, quiero cantar nuestra comarca en su estado natural y primitivo y expresar, aunque sea de una manera deficiente y torpe, el encanto y la gracia de esta tierra dulce y amable". Horrela irakurtzen da hitzaurrean eta honelaxe jarraitzen du:

5 CARO BAROJA, J., "Baroja eta Euskal Herria", in: VV., *Pio Baroja. Bere ehunurteburuan*, 1972, 23

"Ciertamente nuestro rincón del Bidasoa no tiene brillante cultura, ni esplendorosa historia; no hay en él grandes montes, ni grandes valles, ni magníficas ciudades; pero no por eso dejan de cantar los ruiseñores en las enramadas las noches de verano y las alondras en los prados las mañanas de sol.

Para nosotros, los entusiastas de esta tierra, es el país del Bidasoa como una canción dulce, ligera, conocida, siempre vieja y siempre nueva.

Este clima mudable y cambiante se armoniza con el tono de nuestro espíritu; su versatilidad nos halaga y nos distrae, y la preferimos, con mucho, a la inmovilidad pomposa de otras tierras y de otros climas.

Sí; nuestro país es un país humilde, pero es un país sonriente e ingenuo, y cuando el sol de otoño lo ilumina con su luz dorada, cuando en las tardes de domingo los campesinos bailan en las plazas de los pueblos al son del silbo y del tamboril, para ti, poeta, es un país encantador".

Horixe da. Gure memoria historikoan eta autokontzientzian, guk ez daukagu piramiderik eta tenplo galantik, trikuarri eta sepultura galdu batzuk mendietan apal-apalak bakarrik dauzkagu hasieran, orgabidezko historia mehar neketsu luzea gero. Gu beti txikiak izan gara eta txikia hobeto ulertzen dugu. Handia indarra da. Inperioa. Handian agintea da, botere-kontzentrazioa (eta menpekoen kontzentrazioak: lurra lantzen, katedraleak eraikitzen). Askatasuna txikian egoten da. Edo, behintzat, besterik ezer nekez egoten da txikian, libertatea baino.

(Bakarrik, ez diot Barojari ondoegi ulertzen gero, txikitasun honentzat nola handitasunezko eta harrokeriazko moral bat nahi den à la Nietzsche: "despreciamos la mezquindad y la hipocresía, y amamos todo cuanto sea grande, noble y fuerte"!).

Kristautasunaren eta (euskal) paganismoaren arteko aurkatasun hori ulertu egin behar da: ez da inolaz ere erlijiozko "egia"ren arazorik. Erlijioaren egiak ez dio batere axola. Hobe, ez dago erlijioaren egiarik ("no hay verdad única, Arbelaz, no... Urtzi es tan verdad como Jehová o como el Cristo"), edo herri bakoitzak dauka erlijiozko bere egia partikularra ("Cada pueblo tiene su verdad. El catolicismo será la verdad de los forasteros, de los maquetos, pero no la nuestra"). Kontrajarpen horretan ulertu behar dena, hortakoz, izpirituzko bi jarrera kontrariorena da, munduan egoteko eta naturan plantatzeko bi posturarena. Jaun Alzatekoak euskal izpiritu zaharra, jatorra, paganoa, Euskal Herria kristautu baino lehenagokoa, gorpuzten du.

Kristautasun hits, goibelkorraren aldean, euskal izpiritu jentila baikor alaia da, gerran zein lanean. Ez da heriotzaren beldur. Dantza eta irria maite du. "Bebed, cantad, bailad, amigos! La vida es corta y la juventud se pasa pronto. Esa es toda nuestra

filosofía. Mañana llegará la muerte en la guerra o en la paz. La recibiremos bravamente. La alegría es buena y la risa también".

Dantza sakratu dionisiakoa da hori noski, ez dantza friboloa. Bizitzaren dantza. Jakitunetan jakitun Zarathustraren dantza. Jaun Alzatekoa ere da, gizagaindikoa bezala, "un guerrero esforzado y un sabio, un hombre noble, de un noble espíritu", haren garaia alegia, Euskal Herri paganoa. Ohartzen duzue, Miranderen munduan gabiltzala orobat. Mundu horren eta horren izpirituaren ordezkariak bezala hartzen baditugu sorginak, sorgin politak noski, neska gazte paganoak, Akelarrea edertasunezko liturgia bihurtzen da: "Sorginen leizean,/ lizun, bilhuts-gorri,/ bilhoak haizean,/ neska bat dantzari..." Barojaren Errotazarren orobat, "se dice que se celebra el Sábado con grandes danzas; que las mujeres bailan desnudas, llevando cinturones de piel de gato atados a la cintura". Biziera paganoaren ederra eta librea adierazteko irudiak.

Kristautasunaren deskribapenean ez naiz luzatuko, beste haren obra batzuetan hemen baino hobeto ikus bait daiteke Barojak nola pentsatzen zuen horretaz: narras arlotea da, herri miserable baten produktu zikina, etab. Ekialdetarra da, euskal izpirituari arrotza: "¡No comprendo cómo los vascos se pueden entusiasmar con esos mitos orientales de judíos y de africanos!". Bakarrik hemen "latino"arekin ageri da bateginda. Horrela kontrajarpena borobiltzen doakigu: kristaua berdin latinoa versus euskalduna berdin jentila. "Yo comprendo que a los vascos no les agrada el cristianismo, que no es más que la avalancha judía con un barniz latino". Latinoa, ordea, axalkeria da, itxurakeria, faltsukeria eta komedia. "Todos estos latinos y los que se educan con ellos son histriones de nacimiento". Zintasun falta. Fintasun falta une berean, Jainko gizon eginaren mito kristaua barne-barnean zatarkeria hutsa da eta: "¡Qué falta de poesía! ¡Qué ramplón es lo cristiano! ¡Qué poco arte hay en todo esto!"

Kristautasunak azken finean estetika falta du erabat: azkenean dena faltatzea bait da hori, Schopenhauer-en eta Nietzsche-ren tradizioan.

Halere, baina, eta hori guztia eta guzti, h.d., paganismoa hain ederra eta bortitza izan arren, eta euskaldun paganoak hain jende prestu eta jatorra, nola esplikatzen da kristautasuna halere nagusitu egitea? Zerbait berdintsua Nietzsche-ri gertatzen zitzaion germaniarrekin: hain jatorrak baziren berak, eta hain lardatsa kristautasuna, zergatik kristautu ziren? Problema hori-horixe bait da, uholdea bezala ari dela kristautasuna sartzen, herri osoaz jabetuz, Jaun Alzatekoaren alaba bera irabaziz: "Ha abandonado su religión; pronto olvidará su idioma por el latín (...); estamos todos declinando *musa*, *musae* (...). Y a nosotros nos dominarán también esos curas histriónicos con sus dioses judíos, y llegará un día en que Alzate tenga una iglesia cultora con sus campanas, que nos despertarán cuando estemos durmiendo. *Finis Vasconiae*. Hasta yo quiero decir palabras

en latín. ¡Qué miseria!"... Arbeláiz kultugin edo sazerdote paganoa da: "La verdad es –aitortzen du elkarrizketan– que nuestras ideas y nuestras costumbres vascas corren ya un gran peligro. El cristianismo avanza por todas partes. Todo nos quieren quitar esos cristianos, esos cultores, para sustituir nuestras prácticas. ¿Y por qué? Por discursos en latín que no entendemos". Jaun Altzatekok ostera: "Tienes razón, Arbeláiz: nos quieren quitar nuestras venerandas tradiciones vascas e implantar la religión nueva con sus dogmas judíos".

Euskaltasuna euskal "izpiritu"etan mamituz, oso irudiorki deskribatzen digu mehatxua. Honela mintzo dira izpirituok: "Llevamos una existencia muy precaria, andamos escondidos, proscritos, huyendo de las campanas, de los rezos, del agua bendita y de los hisopos. Ya no tenemos sitio donde guarecernos, y el latín nos persigue con su *saecula saeculorum* por todos los rincones del mundo".

[6/a] Dena den, bion arteko antzak, bi-bion ontologia desberdinen gainean daude eraikita, esaten ari garen Barojarenak alegia eta ulertu nahi dugun Miranderenak. Azken honentzat, Schopenhauer-entzat bezala, fenomenoetako mundua (agerkorra) irudipena baizik ez da, egiaz-egiazkoa barnagoko agertezina izaki. Barojarentzat, Nietzsche-rentzat bezala (Barojak berak aipatzen duena Lukrezio da), ez dago beste benetako mundurik, agerpenetako hauxe baino: "no hay más que la Naturaleza" (behin eta bitan errepikatua esaldia); "la naturaleza ciega de leyes rígidas e inmutables". Ez dauka sentidorik agerpenok azpiagoko esanahi sekretu batez galdegiteak, gure bizitzaren esanahi sakonaz adibidez: "Para mí nadie sabe, ni sabrá, por qué venimos al mundo, ni para qué, si es que tenemos algún objeto al llegar aquí, que yo lo dudo".

Horregatik, euskaldunak zergatik diren kristautu, hemengo jauntxoek hango jauntxoekin (latinoekin) interesak edukitzea eta gero herriko jende xumeak jauntxoei jarraitzea baino, askoz esanahitsuagoa izango da Barojaren arrazoia: Natura soilaren erlijioa da euskaldunona: "Los vascos adoramos al Sol, a la Luna, al rayo, al trueno, al fuego, a los árboles, a las fuerzas de la Naturaleza, a las fuentes". Baina hori horrela, izpiritu bortitzak bakarrik egin dezake. Gaur egun: "El hombre no tiene la mirada bastante fuerte para contemplar la Naturaleza cara a cara". Arazoa, beraz, ez legoke Soziologian. Metafisikan edo legoke.

[6/b] Euskaltasuna eta kristautasuna kontrajartzea testuinguru handiagoetan kokatzen da. Testuinguru bat, orain beharbada oso ulerterraza irudituko ez dena, ekialde eta mendebaldearen kontrajarpena izan da.

Ekialde/mendebalderen kontrajarpena, esanahi eta erabilera askotakoa izan da eta aspaldikoa da: ez da Miranderena partikulazki. Ekialdeko eta mendebaldeko "filosofiak"

bereizteko erabil daiteke, edo bion arteko tradizio politikoak, erlijioak, kulturak orokorki, elkarren aurkakotzat emateko. Esaterako, Errusia "asiatikoa" dela esaten eta azpimarratzen denean, Iraultza sobietarrak ez duela mendebalderako balio, jakin beharko da ulertzen⁶. Era honetan korrientea izan da ekialde/mendebalde kontrajarpenarekin operatzea kultur historian edozeren interpretaziorako (mitoa versus filosofia, mistika versus teknika, izpiritualismoa versus materialismoa, etab.). Politikan bezala, filosofian ere ikus daitezke bata-bestearekin borrokan bi kontinenteak (kontinente bakoitzak printzipio bat inkarnatzen duela). Hala ikusi zituen Hegel-ek: hasiera batean filosofia ekialdetarrak "influye sobre los países de Occidente, países de moderación y de medida en los que predomina el espíritu de la subjetividad. Sobre todo en los primeros siglos del cristianismo —una época importante— penetraron estas grandes concepciones orientales en el Occidente y llegaron hasta Italia; y con la filosofía gnóstica, empezaron a desequilibrar el espíritu occidental, hasta que, con la Iglesia, éste recobró la primacía"⁷. Ideia horiek eragin handia izan dute XIX. mendeko Errusian: Solovyov, Tolstoi etab., eta mogimendu eslabofiloak, "mendebalde materialistaren" etsaia, Espainian Unamunoren antzera.

Gure artean, Mirandek baino dexente lehen, kontrajarpen hori erabili duen bat, J.M.Salaverria izan da, erlijoiokera ekialdetar eta mendebaldarraren diferentzia Inazio Loiolakoaren bilakaera erlijiosoari aplikatzeko. Pasartea luzetxoa da, baina apenas ezagutzen bait da (ahaztuta daukagun Autore hori, noizpait birreskuratu beharko da), osorik aldatuko dut:

"Había que decidirse entre Jerusalén y Roma, entre el espíritu de Oriente y el de Occidente. Por el camino de Oriente se volvía a las llamas originales de la doctrina de Jesús, a la pureza primitiva, a las fuentes fecundadoras; pero se iba también a las exageraciones ascéticas, a las interpretaciones atrevidas, a las desviaciones peligrosas. Roma, al contrario, era el muro de contención para todas las divagaciones inspiradas y todos los excesos místicos; Roma era la fijeza, la autoridad, el dogma. Lo firme e invariable en lo eterno. Íñigo se decidió por Roma.

6 Garai batean ideia komunitei eta Iraultza sobietarrari zaputz egiteko modu nahikoa arrunta zen hori. Laster autore horixe ikustera goazenez, aipa dezagun Ortegaren kasua, antzeko testu askoren artetik, *Obras Completas*, X, 673 adibidez: "Este turbio movimiento de Rusia que había desorientado a nuestros obreros en política, hacía también que algunos vacilasen en moral. Pero la decadencia del bolchevismo eslavo, la inverosimilitud creciente de su triunfo en Europa —Rusia es históricamente Asia y el ruso una especie de chino más joven— ha disminuido la influencia de la política leninista sobre los obreros occidentales"

7 HEGEL, G.W.F., *Lecciones sobre la historia de la filosofía*, vol.I, 1977, 111. Ik. orobat *Introducción a la historia de la filosofía*, 1983, 47: "Los orientales, por ejemplo, son hombres y, como tales, libres en sí; pero a pesar de eso no son libres, porque no tienen conciencia de la libertad, sino que les ha agrado todo despotismo de la religión y de las relaciones políticas. La diferencia total entre los pueblos orientales y los pueblos donde no domina el régimen de esclavitud [europarrak] es que éstos saben que son libres, que son libres por sí" ("en sí" eta "por/para sí" kontrajartzeko testuinguruan)

Su mente sagaz de occidental perfecto había comprendido que un cristianismo integral, o sea un jesuitismo auténtico, estaba reñido con la naturaleza de la humanidad europea. La pura idea cristiana, ¿podría ser nunca en realidad íntimamente europea? Roma, el Papado y el cesarismo de la Iglesia romana se han encargado de traducir el espíritu del Evangelio y de «adaptarlo» a la naturaleza y el temperamento del hombre occidental; y así fué posible el verdadero milagro de la cristianización de Europa.

Acaso la historia religiosa del hombre occidental se reduce a una lucha íntima entre esas dos oposiciones: Oriente y Occidente. La voluntad de ser cristiano del hombre europeo se ve combatida por el sentido real de su naturaleza. Su naturaleza le empuja a desear precisamente todo aquello que el Evangelio repudia. El orgullo y la altivez, el culto de la energía y de la acción, la fe en el esfuerzo humano, la embriaguez de la fuerza, el amor del progreso ilimitado, el optimismo del porvenir: ¡cómo todo esto se aleja del espíritu, por ejemplo, del Sermón de la Montaña! El talento de Roma ha consistido en traducir todo eso de modo que el alma occidental pudiera recibirlo sin alarma; trabajo de corrección, de sabias omisiones, de saber pasar por alto, de saber reducir los efectos o quitar importancia a ciertos pasajes; trabajo que solamente la experiencia política de Roma era capaz de cumplir, situándose como el providencial intermediario o intérprete entre el Oriente y el Occidente.

Roma sabe demasiado bien que la doctrina pura de Jesús conduce a la renunciación y al nihilismo místico, o a un comunismo aletargador. Y el mundo occidental, sobre todo el mundo germánico, no quiere renunciar ni aletargarse. Por eso Roma ha puesto tanta sabiduría en atenuar la índole radical del misticismo y el abandonismo orientales. Ha atenuado sobre todo la idea primitiva «del apocalipsis», tan concorde con el alma de Oriente.

Aquella alarma del primer cristianismo, aquella alucinante creencia en la próxima desaparición de este mundo, que después de cumplido el sacrificio redentor de Cristo ya no tiene ni razón ni necesidad de existir, Roma la transforma en una creencia de eternidad. No sólo una eternidad celestial, sino también, y principalmente, terrenal. La Iglesia es lo eterno, lo firme y lo invulnerable. La Iglesia será siempre Roma. Roma será la ciudad eterna que reinará eternamente en el mundo..."

Ekialde/mendebalde arazoa utzi eta gatozen berriro Euskal Herriko kristautasunera: euskal izpiritu jatorraren hondamena da.

[7: *Ortegaren arabera ekintza politiko handiaren baldintzak*] Gainbehera horretatik buelta hartu nahi badu, menpegabetu eta askatu egin nahi badu Euskal Herriak eta berjabetu, printzipioak eta otoitzak baino, ekintzak beharko ditu. Ekintzak, ordea, latzak izan ohi ditu eskuak. Bistan da, hemen aisa Machiavelli-ren *Printzea*, etab., aipatu ahal izango zirela. Baina askoz sinpleago bat, batez ere intelektual gure eskoletan prestu, benera eta omengarri baten, "liberal" itzal handiko Ortegaren saiotoxoa bat gomenda liteke: *Mirabeau o el político*, 1927koa. Kriaren kontzientzia bizi-biziz dago idatzita, eta hura

gainditu ahal izateko beharko den talante moralaz, honela dio: "(...) No creo posible la salvación de Europa si no se decide la humanidad de Occidente, perforando todos los prejuicios y remilgos de una vieja civilización, a buscar el contacto inmediato con la más nuda realidad de la vida, es decir, a aceptar ésta íntegramente en todas sus condiciones, sin aspavientos de un artificioso pudor. Durante siglos se ha obstinado Europa en evitar ese sincero reconocimiento. Una hipocresía radical nos ha llevado a no querer ver de la vida lo que las sucesivas morales declaraban indeseable, como si esto bastase para poder prescindir de ello".

Jarrai-jarraian hain zuzen, Europa eta Asiaren kontrastapena daukagu hor ere, bizitzaren eta patuaren aurreko bion jarrerari buruz oraingoan: "Ningún otro continente se ha mostrado tan ligero, tan frívolo, tan pueril como el europeo en dar por no existente lo fatal. A esto se debe, en buena parte, la perpetua inquietud de su historia. Al adoptar posturas que no encajan en el marco de condiciones inexorables impuestas a la vida, se hacía ésta imposible y forzoso buscar otra colocación, y así sucesivamente. La quietud de Asia, su mayor asiento sobre el haz de la existencia, procede, sin duda, de falta de heroísmo y de entusiasmo, pero a la vez de que se halla mejor engastada en el soporte último de la vida. Asia es conformista: para ella lo que es, debe ser. Europa es reformista: para ella lo que no debe ser, no es".

Salbazioaren arlora eta politikaren kontura etorritz: Mirabeau politikoaren arketipotzat jartzeak (ez idealtzat) esan nahi du, politiko handiaren epaian ez daukagula balorazio moral arruntekin jokatzetik. Politiko ideala pentsatu ohi da izango litzatekeela, estadista trebez gain, pertsona on bat litzatekeena. Ordea zentzugabekeria hutsa da hori. Politiko handi bat arima handi bat da. Gure aro demokratikoak ahanterazi egin nahi digu, tamaina desberdinetako arimak daudela: handi bikainak eta kaskar ximurrak (*La rebelión de las masas*, 1. kap.rekin erka daiteke hau dena). Handiak bere birtuteak eta bizioak dauzka –haiek ez hauek gabe–, txikiak bereak. Ez du zentzurik handiari txikiaren birtuteak ala bizioak eskatzeak. "El magnánimo y el pusilánime pertenecen a especies diversas; vivir es para uno y otro una operación de sentido divergente y, en consecuencia, llevan dentro de sí dos perspectivas morales contradictorias".

Arima kaskar oilo-bustiak oker bezain injustuki epaitu ohi ditu handiaren ekintzak. Arima handia ekinkorra da, kreatzailea delako; eta kreatzailea da, barne-indar batek bere indar propioz darabilelako: handiaren bizitzea ekintza handiak egitea eta obra handiak sortzea da. Handitasunean bizi da, handitasunak berak sortzen du eta. Arima lotsor, txepelak ez du munduan misio propio bat: haren bizitzea hor-egotea eta irautea izaten da, eginda aurkitu zituen gauzen artean mugitzea (estilo artistiko, pentsamendu-sistema, arau moral, egoera politiko eginak). "Sus actos no emanan de una necesidad creadora,

originaria, inspirada e ineludible –ineludible como el parto. El pusilánime, por sí, no tiene nada que hacer: carece de proyectos y de afán riguroso de ejecución. De suerte que, no habiendo en su interior *destino*, forzosidad congénita de crear, de derramarse en obras, sólo actúa movido por intereses subjetivos –el placer y el dolor–. Busca el placer y evita el dolor".

Berak ez daki besterik egiten, arima zaingabe kikilak, eta bera adinakoak, uste izaten du, behar dutela beste guztiek izan. Ezin ulertu izaten du inoren gogo-handitasunik, apartekotasunik. Norbaiten militantziarik edo, izan-nahirik, goi-minik, ahaleginik, beste interes materialik gabe. Berak ez bait daki saritxoagatik baino jokutzen. (Ortegaren ideia hauetxek berak Unamunok errepikatzen ditu, Hitzaurrean, ohi zuen erretorikarekin, in *Vida de Don Quijote y Sancho*). Pintore gazte bat, Parisera edo joan eta, txirotasuna eta miseria sofrituz, eginahalak egiten ari dela, bere pintura betegintzeagatik? Arima ziztrinak anbizioa eta interes ezkutuak susmatzen ditu azpian. Eta bidezkoa da (handitasuna behar da, bestearen handitasuna aitortzeko), eta ridikulua da une berean: "¿No es cómico que se califique a César de ambicioso? ¿Hay que ver! ¿César pretendía nada menos que ser un César, y Napoleón tuvo la avilantez de aspirar durante su vida al puesto ilustre de Napoleón! Este gracioso contrasentido resulta siempre que se considere la vida del grande hombre, u hombre de obras, bajo la perspectiva moral y según los datos psicológicos del hombre menor, sin destino de creación".

(Ez dadin, Mirandegandik urruntzen ari garenik, pentsa: norbere izaerari eta barne-ahotsari jarraitu ala amore eman eta saldoaren moralari makurtu, horrelaxe dago planteatuta *Haur Besoetakoa* nobelako drama guztia).

Edozein ez da noski Zesar edo Napoleon. Baina izan ere ez da hori kontua. Kontua da inor ez aurretiazko balorazio eskemetan hertsatzea: bakoitzari bere nortasuna uztea, bere estiloa alegia literaturan, bere tankera pinturan, bere moralia ibileran, bere lehia eta entrega borroka politikoan. Bakoitzari bere zuzentasuna. Jendearen zeresanari jaramonik egin gabe. Galdegin dezagun, beraz, politikarako: ba ote dago politika egiterik, denok dakizkigun birtute kristau klasikoekin? Ba ote dago une berean politiko handi bat eta kristau txintxo-txintxo bat izaterik?... Ez. Politiko handia "magnífica fiera" bat da. Ez dauka eskrupuloeekin ibiltzerik. "(...) La honradez, la veracidad, la templanza sexual: son, sin duda, virtudes; pero pequeñas: son las virtudes de la pusilanimidad. Frente a ellas encuentro las virtudes creadoras, de grandes dimensiones, las virtudes magnánimas". Eta Mirandek Euskadiri begiratzeko badio, Espainiari egiten bait dio Ortegak: "Es preciso ir educando a España para la óptica de la magnanimidad, ya que es un pueblo ahogado por el exceso de virtudes pusilánimes. Cada día adquiere mayor predominio la moral canija de las almas mediocres, que es excelente cuando es compensada por los fieros y rudos

aletazos de las almas mayores, pero que es mortal cuando pretende dirigir una raza y, apostada en todos los lugares estratégicos, se dedica a aplastar todo germen de superioridad".

Aski, oraingoz. Ulertu dela, espero dut, ulertarazi behar nuena: Miranderen amoralismoak ere, kristautasunaren arbuioak bezalaxe, bere testuinguru eta lagunarte zabalagoa duela, hortxe duelarik bere sentidoa kultur historian (zilegi edo zuzentasuna eztabaidatzea beti dagoela, ukatu gabe: esplikatzen ari gara, ez legitimatzen). Ez gara, bada, alferrik luzatuko. Labur-labur: politiko handiak, nortasunaren arabera, bere birtuteak erakutsiko ditu. (Politiko handiaren moral edo inmoraltasun arazorik ez dago beraz). Baina guztion azpian natura indartsu bat arituko da, Ortega "ciertas condiciones orgánicas" bezala aipatzen dituenak: "Tales son la impulsividad, el activismo e inquietud constantes, la falta de escrupulosidad. Sobre éstas va a caballo el genio; sin esas capacidades psicofisiológicas, que son como fuerzas brutas y poderes elementales –demoníacos, diría un antiguo–, no hay grande hombre político". Ez dago ekintza politiko handirik, irakur genezake guk: "nada grande se ha realizado en el mundo sin pasión", esaten zuen Hegel-ek⁸.

[8: *Nietzsche-ren eraginpean*] Ez goaz orain azterketan abiatzera, Nietzsche-ren eragina zenbaterainokoa izan ote zen Ortega eta Barojaren baitan: lehendik eginak daude horrelako ikerketak eta, gainera, nire asmoa guzti honetan, Miranderen pentsaerak ingurumari hedatsua izan duela erakustea baino ez da funtsean. Ortega aipatzen badut, esate baterako, ez da, berak Mirande influentziatu zuenik edo, uste dudalako, Mirande zegoen influentzien pean beste asko ere bazegoela adieraztearren baino, garai hartan Europan. Berez Nietzsche soil baino zabalagoa eta luzeagoa da, filosofia alemaneko pentsamendu-korrontea, Mirande non kokatzen den: erraztasun amorez, Autore horrengana mugatuko gara bakarrik ondorengoan.

Sekulakoa izan du Nietzsche-k eragina literaturan, Frantzia zein Espainian. Zer duda, Miranderi Frantziako eragintza hurbilago geratzen zitzaioela; guri, Miranderen euskal irakurle hegoaldekoari alegia (hori bait dut orain gogoan, eta gaztea batipat, UEUn gabiltzanez gero), ezagunagoa egiten zaigu Espainiakoa ezinbesteko gure probintzianismo espainolean. Bera, egon, Parisen zegoen, Nietzsche-ren eragina literatura frantsesean G. Bianqui-k, J. Wilhelm-ek ikertua dago: interesatua horietaz balia daiteke Mirande inguru bereago horretan interpretatzeko. Ni, esan bezala, irakurleari nago begira, eta SOBEJANO, G., *Nietzsche en España*, 1967, ikerketaz baliatuko naiz oharrotarako. Dena dela, agian ez gaurko gurean, baina tradizio kritiko handi batean dago Mirande, hori ez daukagu zergatik ezkutatu, gutxiago zergatik ukatu, ezpada bai zergatik arreta guztiz kontuan hartu, hura ez bihurtzeko izan ez zen mamu.

8 ID., *Lecciones sobre la filosofía de la historia*, 1985, 83

"La razón vital", hasten da Sobejano laburbilduz ikusi berria dugun autore espainolarekikoa, "el perspectivismo, el aristocratismo ético-social –doctrinas fundamentales en Ortega– tienen tan evidente relación con el ideario de Nietzsche que pocos son los comentaristas del filósofo español que han dejado de consignarla".

Dirudienez Ramiro de Maeztu euskotarrak bultzaturik hasi zen hain zuzen Ortega Nietzsche ikasten, oso gazterik ("nietzscheano a los 18 años"). Geroago ere, izpirituak menpetasun zahar batetik jaregin zituena bezala gogoratuko du eskerronez: "Nietzsche nos fué necesario", "Nietzsche nos hizo orgullosos".

Ortegaren vitalismoa bere filosofia guztiaren ardatz bilakatu da, ez politikoaren balorazioan bakarrik. Kulturak, bizia izateko, vitalista izan behar du: arrazoimenari bizitza ipini behar dio gainetik, ikerketa hotzari intuizioa. Zientzia modernoa ideal aszetikoekin berdindu da, odolgabeko, txepel: "La ciencia es el entendimiento que busca la verdad por la verdad misma. No es la función biológica del intelecto, que, como todas las potencias vitales, se supedita al organismo total del ser viviente y recibe de él su regla y su módulo". Problema, halere, ez da zientziarena bakarrik. Ortegarentzat ere gakoa mendebaldea kristautu izatean datza, hots, aszetismo kristaua germano ertarotarren oldarrari nagusitu zitzaionez gero hedatu den moral gelbera, ahul, melingatuan. Hozkiltasun horretatik ezin ezer handi sor daiteke, ez kulturalki, ez sozialki. "Espero más del orgullo que de la humildad, más del entusiasmo que de la discreción. Como Nietzsche, prefiero las virtudes de la vida ascendente".

Mirande bera baino gerraren eta indarraren, are barbarotasunaren eta basakeriaren gorazarrean, Don José arrafin dotorea esplizitoagoa izan da, halere. Gerrak izpiritua bizkortzen eta garbaltzen du, ideia handiak katastrofe handietan bizten omen dira: "en la atmósfera eléctrica de éstas [gerrak] medran de repente las ideas extremas". Izpiritu honi dagokion gizarte modua aristokratiko gudaria da, hau, Spengler-en maneran, izpiritu burges industrialaren kontrariotzat hartuz. Sobejanok dakarrenez, "la ética industrial es moral y vitalmente inferior a la del guerrero: aquella esta gobernada por el principio de utilidad, ésta por el entusiasmo; en la colectividad industrial los hombres se asocian por contrato, mientras en la guerrera se solidarizan por el honor y la fidelidad, 'dos normas sublimes'. El espíritu industrial, cauteloso, evita el riesgo; 'el guerrero brota de un genial apetito del peligro'". Gudu-zalduntza batean ikusi badu Mirandek bere nazioaren salbaidia eta muina, berdintsu egiten zuen Ortegak: "aunque la fuerza represente sólo un papel secundario y auxiliar en los grandes procesos de incorporación nacional, es inseparable de ese estro divino que (...) poseen los pueblos creadores e imperiales. El mismo genio que inventa un programa sugestivo de vida en común, sabe siempre forjar una hueste ejemplar, que es de ese programa símbolo eficaz y sin par propaganda".

Demokrazia, igarriko zaio, zenbat estima litekeen eskema horien barruan: "Degeneración de los corazones llama Ortega a la democracia actual, originada en el resentimiento y productora de la total inversión de los valores: lo superior padece disminución, lo inferior triunfa. El resentido busca la igualdad no sólo ante las leyes, sino de todas las cualidades (...). Ortega manifiesta su olímpico desprecio hacia los sentimientos vulgares y mediocres de la burguesía filistea, ensañándose contra el romanticismo y la democracia. Esta tiene derechos, pero la nobleza tiene obligaciones. Logrados los derechos mínimos, gracias al liberalismo, hay que avanzar ahora desde el antiguo a un nuevo régimen, hacia 'la nueva estructura social, la nueva jerarquía', basada en los derechos diferenciales y máximos, en un sistema de rangos".

Puntu erdikorra jo dugu: zer den ongi eta gaizki, norberarentzat bezala gizartearentzat. Eta horrek bi erantzun mota duela, bata bulgarea eta noblea bestea. Hots, egon dagoena ez dela morala, baina beti moral bi dagoela: "siempre habrá dos tablas contrapuestas de valoración: la de los mejores y la de los muchos –en moral, en costumbres, en gestos, en arte–. Siempre habrá dos maneras irreductibles de pensar sobre la vida y sobre las cosas: la de los pocos inteligentes y la de los obtusos innumerables". (Hemen, ez dakit zergatik, beharbada bere burua alderdi batean kidekatzeagatik, nobleak eta inteligenteak berdintzen dizkigu Ortegak: spenglerianoa batik-bat ez da batere berdinketa hori). Bi moralon arabera gizarteak ere funtsezko bi mailatan (goia, behea) egon behar du antolatuta. Aristokratismoa, elitismoa, komenentzia bat baino gehiago, lege natural bat iruditzen zaio Ortegari, ez dago zertan auzitan jarri: "Resulta completamente ocioso discutir si una sociedad debe ser o no debe ser constituida con la intervención de una aristocracia. La cuestión está resuelta desde el primer día de la historia humana: una sociedad sin aristocracia, sin minoría egregia, no es una sociedad".

Hain zuzen gizarte oraindarraren ajea, europar guztiarena (*La rebelión de las masas*), baina espainolarena bereziki (*España invertibrada*), hierarkia eta nobletasun falta horixe da, demokrazia berdinkorrak dena zapaldu zuenez gero. Ondorioz gizarteak ez du egontasunik, orekarik, zanbuluka dabil etengabeko krisietan. Itzurtezina du hori. Behar-beharrezkoa, une berean, gizarte berri batera jeikitzeko: "Todas las crisis que ahora inquietan el mundo son necesarias para que la sociedad vuelva a organizarse en una nueva aristocracia". Beste leku batean oraindik: "Muy probablemente, dentro de cincuenta años Europa estará dirigida, no por instituciones feudales, pero sí por hombres de espíritu mucho más parecido al de los señores feudales que al de los dueños del siglo XIX: financieros, abogados y periodistas".

"Yo creo que hay que levantar –azaltzen du Barojaren pertsonaia batek– aunque sea sobre ruinas, una oligarquía, una aristocracia individual, nueva, brutal, fuerte, áspera, violenta, que perturbe la sociedad, y que inmediatamente que empiece a decaer sea

destrozada". Bestetan ere aipatu izan dudanez, gudu-zalduntza (iberiko) baten ideia Barojaren *El árbol de la ciencia*-n aurkitzen da, eta handik –nire ustez– Mirande baitan gero.

César o nada nobelan Espainiako dekadentziaren kausantea da katolizismoa. Betiko temak: eraso-oldarra, bitalismoa, borroka, indargintza. "En la vida no hay que defenderse, sino atacar, atacar siempre". Gudua kreatibo da, biolentzia ernalkorra: "Destruir es crear". "Todo se debe a la violencia y a la guerra" (Heraklito-ren oihartzun bat agian). Lagun hurkoaren maitasunak moralki debekatuta egon beharko luke, ez erlijiosoki aginduta. Demokrazia eta eskubide-berdintasun kontuak halaber hobe denak errekarra jaurti. "La democracia, la República, el socialismo, en el fondo no tienen raíz en nuestra tierra".

Barojak beti bihotz-bihotzez gorrotatu ditu demokrazia eta sozialismoa ("vida en rebaño"), hots, kristautasuna: "kristautasuna triste da, iluna"; "kristautasuna sortuz gero, gizadiaren bizitzak ez du egin degeneratu besterik". Progresoa eta, ideia moderno kuttunenak, higuigarri zaizkio halaber: "el progreso acabará por hacer del hombre un imbécil". Mendebaldeko krisiaren irtenbidea ez doa guzti horretatik, baina elite azkar baten gidaritza bortitzetik: "El montón, la masa, nunca será nada. Cuando haya una oligarquía de hombres selectos, en que cada uno sea una conciencia, entre ellos la libre elección, la simpatía lo regirán todo. La ley sólo quedará para la canalla que no se haya emancipado". Soluzioa, beraz, jende jaun agintariaren indibidualismo eta despotismo diziplinatuan dago, politika anarko-aristokrata arras berri batean, "que en España se reduciría a un mínimo de ley y a un máximo de autoridad". Jende horrek ez du eskrupulorik izango. Ez du izango moralik. Izan ere, zeri deritzo moral, gure gizarteetan? "La moralidad no es más que la máscara con que se disfraza la debilidad de los instintos. Hombres y pueblos son inmorales cuando son fuertes".

Borroka eta indargintza maite bait dute bortitzak direnean (eta horixe da bortitzaren moral): "La guerra es un tónico para los nervios debilitados de las razas sedentarias. Es el aprendizaje más fuerte para hacerse hombres de voluntad". Edo Zalakain abenturero karlistarena: "Para mí las ciudades están hechas por miserables y sirven para que las saqueen los hombres fuertes".

La ciudad de la niebla-ko planteamenduak *Haur Besoetakoa*-rena gogoratzen du, hemen gizonarena den problema, andrearena izaki han. "¿Tú quieres ser libre? Tienes que ser inmoral. Hay virtudes que sirven y son útiles en un grado de civilización, pero que no sirven y hasta son inútiles en otro. Delante de tí tienes dos soluciones: una, la vida independiente; otra, la sumisión: vivir libre o tomar un amo; no hay otro camino. La vida libre te llevará probablemente al fracaso, te convertirá en un harapo... Si te sometes, tendrás un amo y la vida te será más fácil".

Garai batean, esaten zuen Mirandek, euskaldunok enda sendo eta azkarra izan ginen, inguruetako herriak borrokatuz eta menperatuz. Gero Elizak bildots bihurtu gaitu. Berriro ekin beharra dago borrokari, aske eta berjabe, menpegabe izateko. Barojak espainolentzat idazten zuen, eta begira nola: "Los españoles hemos sido grandes en otra época, amamantados por la guerra, por el peligro y por la acción; hoy no lo somos. Mientras no tengamos más ideal que el de una pobre tranquilidad burguesa, seremos insignificantes y mezquinos. Hay que atraer el rayo, si el rayo purifica; hay que atraer la guerra, el peligro, la acción, y llevarlos a la cultura y a la vida moderna".

Beste askorekin jarraitu ahal izango litzateke: Salaverriarekin, adibidez, haren arbuioaz kristautasunari, semita izateagatik, nobleen eta plebeien kontrajarpenaz moralean, etab., Miranderen obran ere gai topikoak direnak. Gudagintzaz: "El hombre es un animal de guerra". Eta honek ere espainolentzat idatzi bait du: "El renegar del instinto guerrero, de la tradición peleadora, ha sido el más torpe error que pudo cometer España; ese instinto y aquella aspiración de gloria y de predominio futuro, hubieran regenerado verdaderamente a España, y no el loco propósito de cultivar la tierra. Un ideal guerrero habría mantenido fuerte a España..."

Planteamendu eta ideal guztion azpian, esaterik ez dago zer klasismo dagoen. Baina Bladi Otero komunista zen eta haren barreneraino ere sartzen zen Nietzsche-ren ebangelio berria:

"Escucho a Nietzsche. Por las noches leo un trozo vivo de Sils-Maria. Suena a mar en sombra. Mas ¡qué buen mareo, qué sombra tan espléndida, tan llena!"

Beste muturrean (autore euskotarretan), berdin maite du oraindik Nietzsche Savater batek, etab. Euskarazkoetan, Jean Etchepareri Nietzsche-k iraizi omen zion errotik, Seminarioan lehendik kordokatua zuen fedea, Lafittek dioskunez⁹, eta "Schopenhauer-en ganik atxiki zuen bizimodu serio eta garratz baten beharra". Ba omen da filosofia honen zantzurik haren obran (aztertu gabekoa neuk), "ez bazituen ere golkoan zituenak oro argitaratu". Krutwig, Txillardegui, Aresti, etab., gehi litezke, eta Lete (ez dakit zuzenki ala zeharka).

[9: *Nietzsche-ren planteamendu oinarritzkoa*] Ongiaren eta gaizkiaren arazoak, berak hala kontatzen digu, hamairu urte zuenerako enplegatzen zuen jada Nietzsche mutikoa¹⁰.

9 LAFITTE, P., "Mende huntako euskaldun idazleen pentsa-bideak", in: *Kardaberaz* 3 (1974) 69

10 Cfr. *La genealogía de la moral*, 1984, 19-20

Gero, berezko sena bezalako batek irakatsi bide zion bere baitatik "a separar el prejuicio teológico del prejuicio moral, y no busqué ya el origen del mal por *detrás* del mundo. Un poco de aleccionamiento histórico y filológico, y además una innata capacidad selectiva en lo que respecta a las cuestiones psicológicas en general, transformaron pronto mi problema en este otro: ¿en qué condiciones se inventó el hombre esos juicios de valor que son las palabras bueno y malvado?, ¿y qué valor tienen ellos mismos?". Esan beharrik ez daukat, Nietzsche-k "mis hipótesis acerca del origen de la moral" horiek, bere izkribuetako hainbat tokitan azaldu dituela zatikorki eta in *La genealogía de la moral* sistematikoena. Behin-behineko bezain axaleko azalpen batekin konformatuko gara hemen.

Moralitasunaren kezka da seguruenik arazo larriena, sarritakoena Nietzsche-ren obran. Izan ere, Europa lotan zegoela, ikusten zuen, moral faltsu baten ohean etzanda, lo baino loakartuta, drogatuta, bere dekadentzia eragiten zion gezurraren lozorroan. Gure moralizat daukaguna eta permadura sekulakoz betetzen ahalegiten duguna, ez da, zinez, geure hondamena baizik. Ongia deritzoguna, ondoeza da; gaizkia, natura da eta bizitze-
-indarra.

Mirande, Baroja, Ortegarri entzun dizkiegun protestak, Nietzsche-k inspiratuak dira gehienak. Baina Nietzsche-ren kritikak ulertzeko moralari eta kristautasunari, haren bizitzaren kontzeptuari behar zaio jaramon egin aurretik; bizitzaren zentzu jentil, dionisiakoari alegia, natur olde eta jaiera suhar edonoiz libreekin, instintoen berenezko jaialdi argitsuari biziartean, gezurrezko moral baten aginduen zamapean gizakia astotu eta makurtu gabe. Bizitzaren aldekoa da moralaren aurkako hautua. Edononditsu har zitezkeen, baina, hona hemen *Crepúsculo de los ídolos* baitatik pasarte batzuk: "Todos los viejos monstruos de la moral coinciden unánimemente en que *il faut tuer les passions* [akabatu egin behar dira grinak]... Pero atacar las pasiones en su raíz significa atacar la vida en su raíz"¹¹. Nietzsche "la vaca-moral y la grasosa felicidad de la buena conciencia"ren aurka dago (aldarri larriz beti ere). Mendebalde usteleko kultura kristau zikiratu, belaskatu, faunduaren aurka dago, eta arrazoia garbia da beti: "Todo naturalismo en la moral, es decir, toda moral sana está regida por un instinto de la vida (...). La moral contranatural, es decir, casi toda moral hasta ahora enseñada, venerada y predicada se dirige, por el contrario, precisamente contra los instintos de la vida".

Moralak, hortakoz, makurtu egin digu mendebaldarra, zuzendu beharrean. Horregatik, morala "razionalki oinarritzen" enpeinatu diren lehengo filosofo *moralisten* aurka, sasimoral horren genealogia baztarta saiatuko da erakusten oraingo filosofo (agian

11 *Crepúsculo de los ídolos*, 1984, 53-54

hobe: "psikologo") *inmoralista*. Nondik sortu dira, milaka urtetan engainatu gaituzten ongiaren eta gaizkiaren buruera moralista horiek? Nondik sortu den bidez esplikatu du Nietzsche-k zer den (aipatu ohi den Nietzsche-ren "metodo genetiko") moralia. Eta jatorriaren era bikoitzean hori berori: a) etimologikoan (edo semantikoa), eta b) historiko-psikologikoa.

Nietzsche filologo trebea zen, halere arlo honetako bere etimologiek ez dute jeneralean gehiegi balio: hitzak maiz bortxatu egin ditu, bere tesien probagarri bila. Ordea funtsezkoa zuzena da guztiz, bere intuizioa, ongi eta gaizki moralen jatorri fisiko eta sozialarena terminologikoki. "(...) En todas partes, *noble*, *aristocrático* en el sentido estamental, es el concepto básico a partir del cual se desarrolló luego, por necesidad, *bueno* en el sentido de *ánimicamente noble*, de *aristocrático*, de *ánimicamente de índole elevada*, *ánimicamente privilegiado*: un desarrollo que marcha siempre paralelo a aquel otro que hace que *vulgar*, *plebeyo*, *bajo*, acaben por pasar al concepto *malo*"¹². Ez gara, dakarren hainbat adibide aleman, sanskrito, gaeliko, greko, latinotan pausatuko. Euskaraz ere *gaitza*, *gaixoa*, eta *gaiztoa*, *gaizki*, etab. denek familia berekoak dirudite (*ekaitz* eta, ez dakit; edo *txarra/zaharra*, etab.), interesgarria bait litzateke, zenbat agerkun berez fisiko edo organiko, balio moralean erabiltzen den ikertzea gure hizkuntzan ere: *bihurri*, *makur*, *txar*, *ziztrin*, *harro-apal*, etab., batez ere edozein moraletan oinarritzko zuzena eta *okerra* horiek azken finean (eta beste maila batean berdin *eskua*, *eskubidea*, *esku izan* eta beste "esku"tarrak). Hizkuntzaren barnean "metamorfosi kontzeptual" hori atzeman duela Nietzsche-k, "con respecto a la genealogía de la moral –finkatzen du– esto me parece un conocimiento esencial".

Azterketa historiko-psikologikoa zen bigarrena. Guri orain, ikerketa bera baino, emaitzak, interesatzen zaizkigu (bilduma lasterkor honek, bistan dago, ez duela Nietzsche-ren beraren irakurketa ordezkatu). Bi aro handi bereizten du Nietzsche-k moralaren historian (agian hobe hiru, prehistoriarekin): 1) moral-aurretikoa, 2) ohitura moraletakoa, 3) esklabuen bihurrialdikoa.

Egoera moral-aurretikoa, prehistorian, ez dago ongirik eta gaizkirik, plazerea nahi da lortu eta desplazerea itzuri, ez dago instinto horixe baino arau "moral" goitarragorik naturkume soil garbiarentzat. Ongiaren eta gaizkiaaren haraindi ez bada, ongia eta gaizkia baino lehen bizi bait da, Estatua sortu aitzineko basagizona¹³. Horrela, gizakiak, naturalki diharduenean, beti dihardu ongi: ekaitza sortu eta euriak harrapatzen bagaitu eta burutik behera blai-blai utzi, zeinek esaten du horregatik naturak *inmoraliki* diharduenik? Ez zaigu gustatzen, baina gustatzen ez zaigunari, oraindik ez deritzogu inmorala.

¹² *Genealogía*, loc. cit., 33

¹³ Ik., adibidez, *Gizatarra*, *gizatarregia*, 99. eta 102-104. zenbakiak, argitasun drastiko batekoak

Bigarren aroa (moralik egotearen lehenengoa, zentzu estriktoan), Estatuarekin hasten da. Eta Estatua hasten da, berez basapiztienak piska bat gutxiago edo ahulkiago piztietei nagusitu zitzaientean, oldeon gainean beren legea –erpea, alegia– ezarri eta menpean gogor atzemanaz. (Azpiratuon "kontzientzia txarra" hortik sortuko da, moralean bezanbat ondoriotsua gero erlijioetan). "(...) La inserción de una población no sujeta hasta entonces a formas ni a inhibiciones en una forma rigurosa iniciada con un acto de violencia fue llevada hasta su final exclusivamente con puros actos de violencia, –el *Estado* más antiguo apareció, en consecuencia, como una horrible tiranía, como una maquinaria trituradora y desconsiderada, y continuó trabajando de ese modo hasta que aquella materia bruta hecha de pueblo y de semianimal no sólo acabó por quedar bien amasada y maleable, sino por tener también una *forma*. He utilizado la palabra *Estado*: ya se entiende a qué me refiero –una horda cualquiera de rubios animales de presa, una raza de conquistadores y de señores, que organizados para la guerra y dotados de la fuerza de organizar, coloca sin escrúpulo alguno sus terribles zarpas sobre una población tal vez tremendamente superior en número, pero todavía informe, todavía errabunda¹⁴. Así es como, en efecto, se inicia en la tierra el *Estado*: yo pienso que así queda refutada aquella fantasía que le hacía comenzar con un *contrato*. (Horretarakoxe luzatu dut aipamena: ikus zedin, moralaren kritikak demokraziarena inplikatzan zuela). Quien puede mandar, quien por naturaleza es *señor*, quien aparece despótico en obras y gestos –¿qué tiene él que ver con contratos! (...). Estos organizadores natos no saben lo que es culpa, lo que es responsabilidad, lo que es consideración; en ellos impera aquel terrible egoísmo del artista que mira las cosas con ojos de bronce y que de antemano se siente justificado, por toda la eternidad, en la obra, lo mismo que la madre en su hijo"¹⁵.

Ondorioz, labur-labur, morala zer den egoera sozialak erabakitzen du: jaunena lehen esandako moral "naturala" izango da (moralik eza, moral aurretiko edo moralaz haraindiko subiranía); apal edo menpekoena, xumeena, "ohitura" izango da, egitea baimenduta dagoena, hots, bere menpetzaren onarpen etsia. Bestela esanda: norbait gaiztoa ala ona izatea, gaiztoetakoa (manupekoa) ala onetakoa (jaunetakoa) izateak du mekanikoki erabakitzen, klase batean ala bestean parte hartzeak. Gaiztoa gaizto, gaiztotar bezala paratzen da; ona on, onen lagundiar bezala¹⁶. Onak gutxitarren kasta bat dira, agintzen aritzen direnak; gaiztoak saldo handi, masa nahasi bat, hautsaren antzera, nagusien hankek zapalduta.

¹⁴ Engainatzen ez banaiz, egin izan du Mirandek alusio testu hauei bere gogoeta batzuetan, "Euskaldun gudu-zalduntza"renean adibidez, cfr. LARREA, J.M.(ed.), *Miranderen lan kritikoak*, 1985, 21

¹⁵ *Genealogía*, loc. cit., 98-99. Ik. bertan halaber 46-49

¹⁶ Oso testu polita in *Gizatarra, gizatarregia*, § 45

Hirugarren aroa, "esklabuen bihurriadikoa", oraingo gurea alegia (kristaua, demokratikoa), herra beltzaren moralarena da, mendekuarena, korromioaren moralarena. Balioak, lehen, jaunek sortzen zituzten, ongia eta gaizkia. "La rebelión de los esclavos en la moral comienza cuando el *resentimiento* mismo se vuelve creador y engendra valores"¹⁷. Nobleen moralaren arras kontrarioa dugu hau halaberharrez. Nietzsche-k toki askotan kontrastatu izan ditu biok. Zilegi izan bekigu pasarte klasikoenetako bat hona bere luzean aldatzea¹⁸, luzetxoa bada ere, Ortega adibidez literalki bertan inspiratu denez gero:

"Los «bien nacidos» se *sentían* a sí mismos cabalmente como los «felices»; ellos no tenían que construir su felicidad artificialmente y, a veces, persuadirse de ella, *mentírsela*, mediante una mirada dirigida a sus enemigos (como suelen hacer todos los hombres del *resentimiento*); y asimismo, por ser hombres íntegros, repletos de fuerza y, en consecuencia, *necesariamente* activos, no sabían separar la actividad de la felicidad, —en ellos aquélla forma parte, por necesidad, de ésta (de aquí procede el *eupráttein* [obrar bien, ser feliz] —todo esto muy en contraposición con la felicidad al nivel de los impotentes, de los oprimidos, de los llagados por sentimientos venenosos y hostiles, en los cuales la felicidad aparece esencialmente como narcosis, aturdimiento, quietud, paz, «sábado», distensión del ánimo y relajamiento de los miembros, esto es, dicho en una palabra, como algo *pasivo*. Mientras que el hombre noble vive con confianza y franqueza frente a sí mismo (*gennaios* «aristócrata de nacimiento», subraya la *nuance* [matiz] «franco» y también sin duda «ingenuo»), el hombre del *resentimiento* no es ni franco, ni ingenuo, ni honesto y derecho consigo mismo. Su alma *mira de reajo*; su espíritu ama los escondrijos, los caminos tortuosos y las puertas falsas, todo lo encubierto le atrae como *su* mundo, *su* seguridad, *su* alivio; entiende de callar, de no olvidar, de aguardar, de empequeñecerse y humillarse transitoriamente. Una raza de tales hombres del *resentimiento* acabará necesariamente por ser más *inteligente* que cualquier raza noble, venerará también la inteligencia en una medida del todo distinta: a saber, como la más importante condición de existencia, mientras que, entre hombres nobles, la inteligencia fácilmente tiene un delicado dejo de lujo y refinamiento: —en éstos precisamente no es la inteligencia ni mucho menos tan esencial como lo son la perfecta seguridad funcional de los instintos *inconscientes* reguladores o incluso una cierta falta de inteligencia, así por ejemplo el valeroso lanzarse a ciegas, bien sea al peligro, bien sea al enemigo, o aquella entusiasta subitaneidad en la cólera, el amor, el respeto, el agradecimiento y la venganza, en la cual se han reconocido en todos los tiempos las almas nobles. El mismo *resentimiento* del hombre noble, cuando en él aparece, se consume y agota, en efecto, en una reacción inmediata y, por ello, no *envenena*: por otro lado, ni siquiera aparece en innumerables casos en los que resulta inevitable su aparición en todos los débiles e impotentes. No poder tomar mucho tiempo en serio los propios contratiempos, las propias *fechorías* —tal es el signo propio de naturalezas fuertes y plenas, en las cuales hay una sobreabundancia de fuerza plástica, remodeladora, regeneradora, fuerza que también hace olvidar (un buen ejemplo de esto en el mundo moderno es Mirabeau, que no tenía memoria para los insultos ni para las villanías que se cometían con él, y que no podía perdonar por la

¹⁷ *Genealogía*, loc. cit., 42

¹⁸ *Ib.*, 44-46

única razón de que –olvidaba). Un hombre así se sacude de un solo golpe muchos gusanos que en otros, en cambio, anidan subterráneamente; sólo aquí es también posible otra cosa, suponiendo que ella sea en absoluto posible en la tierra –el auténtico «amor a sus enemigos». ¡Cuánto respeto por sus enemigos tiene un hombre noble! –y ese respeto es ya un puente hacia el amor... ¡El hombre noble reclama para sí su enemigo como una distinción suya, no soporta, en efecto, ningún otro enemigo que aquel en el que no hay nada que despreciar y sí *muchísimo* que honrar! En cambio, imaginémosnos «el enemigo» tal como lo concibe el hombre del resentimiento –y justo en ello reside su acción, su creación: ha concebido el «enemigo malvado», *«el malvado»*, y ello, como concepto básico, a partir del cual se imagina también, como imagen posterior y como antítesis, un «bueno» –¡él mismo!"

Irauli egin dira balioak azpikoz gora. Hauxe dugu orain errealitatea: "Atengámonos a los hechos: el pueblo –o *los esclavos*, o *la plebe*, o *el rebaño*, o como usted quiera llamarlo– ha vencido, y si esto ha ocurrido por medio de los judíos, ¡bien!, entonces jamás pueblo alguno tuvo misión más grande en la historia universal. *Los señores* están liquidados; la moral del hombre vulgar ha vencido"¹⁹.

Baina guzti honen sentidoa, barne-barnean, ez da hertsiki historikoa, zerbait puntu batean edo prozesuren batean gertaturen deskribuzkoa (baina, gero, izan nahi luke hori ere). Funtsean Platon-en *Errepublika*-ko eztabaidaren jarraipena da Nietzsche baitan aurkitzen duguna: zer da zuzenbidezkoa? Beraz: ederra, garbia, ohoragarria, noblea, ongia? Zuzenbidea, justizia zein naturatakoa den egiaz, hori da auzia.

[10: *Platon-en eztabaida justizia zer den*] Zuzengabekeria –II. liburuaren hasieran Glaukon-ek deritzenez *Errepublika* baitan– denok nahi genukeena da egin eta inork nahi ez lukeena jasan: baina gero sofritzearen kalteak handiagoak izaten bait dira, egitearen onurak baino, jendea elkarren artean ados jarri da, injustizia hobe dela ez egin, esateko eta onartzeko, eta zer egin behar den eta zer utzi legeak ezartzeko hirian. Legeok betetzea da legezkoa eta zuzenbidezkoa. Horra zuzenbidearen iturria: okerragoaren beldurra ("los buenos lo son por su impotencia de ser injustos").

Suposatzen badugu, ordea, norbait Gigesen eraztun miragarriaren jabe litzatekeela, jendea ikustezin bihurtu ohi zuena, eroa izango litzateke orduan hori, bere burua legeok obligatua usteko balu. Eraztun horrekin, ihes egingo lioke norbere ekintzen ondorioengatik erantzun-beharrari, nahi lukeen guztia egin lezake jabe horrek, ezeren ardurarik gabe (ez zigor, ez desohore sozialik), egoera hipotetiko horretan ez bait lioke inork uko egingo, dio Glaukon-ek, lapurretan aritzeari, edozein txarkeriatan, piztikerian, bere gustu guztien gustuan. Zuzenbidea, beraz, Glaukon-entzat, ez da praktikatzeko, bera

¹⁹ Ib., 41-42

ona delako eta maitatzen dena gizartean bera delako, baina bestela norberak ere edozein bidegabekeria eraman behar izateko beldurrez (Hobbeseekin aldera daitekeen jarrera). Garrantzizkoa, hortakoz, ez da, azken finean, justua izatea, baina justua ematea: zigorrari (kastigua, desohorea) ihes egitea.

Horrek esan nahi du, gizonari legeak agintzen diona, ez dela, bere naturak barrendik agintzen diona. Edo garbiago: gauza bat dela legearen zuzenbidea eta beste bat naturarena (Antifonte-k ere, sofisten artean, predikatzen zuenez)²⁰. Zer milagro, beraz, jendeak, itxuraz eta axalean ez, baina bihotzaren barnean, Adimanto-k Platon-en testuan dioen gisara, jokatzeko badu: "Pues repiten todos a una que la templanza y la justicia son buenas, pero difíciles y penosas, y que en cambio el desenfreno y la injusticia son dulces y fáciles de conseguir, pareciendo tan sólo vergonzoso a los ojos de los hombres y a la ley. Afirman igualmente que por lo general son más ventajosas las cosas injustas que las justas, y se muestran de acuerdo para considerar felices y honrarles complacidamente, tanto pública como privadamente, a los malos que disfrutan de las riquezas o de cualquier otro poder, así como para juzgar indignos y desdeñar a los que sean débiles y pobres, aún teniendo a estos por mejores que aquellos"²¹. Justizia gizartean fikzio hutsa da.

Perikle ondoko epe demokratiko erradikalean (horregatixe Sokrate hilarazi zuenean), Athenaiko klub edo *hetairia* aristokratiko eta oligarkikoetan alde batetik, korronte demokratiko igualitaristetan bestetik, justiziaren kontzeptu tradizionalaren eta berriaren artean biziki gogortu zen auzia. "Ilustrazio" athenaitar honetan, dena auzitan jarririk²², gizartearen jatorriaz eta zentzuaz galdegiten zen²³, erlijioarena²⁴, artearenaz, birtutearenaz, justiziarenaz gizonaren bizitzan. Gizarte tradizionala hankaz gora zihoan eta, ohi denez, balio tradizionalen krisiak alde bateko zein besteko erradikalismoak probokatu zituen. "Indartsuenaren eskubidea"ren doktrinak indar eta gora handia ikusi zuen orduan. Gorgia batek munduko gauzarik naturalena bezala aitortzen du "la ley natural, por la cual el débil no puede oponerse al fuerte, sino que debe ser dominado y regido por éste, de modo que el fuerte va delante y el débil le sigue". Baina famatua, famatuon artean, Trasimako-ren diskurtsua da, irazkinik ez bait du batera behar:

20 Interesatuak ikus ditzake, nahi izanez gero: DUMONT, J.P., *Les Sophistes. Fragments et témoignages*, 1969. GUTHRIE, W.K.C., *Les Sophistes*, 1976. HEINIMANN, F., *Nomos und Physis*, 1965. MEYERHOEFER, H., *Der radikale Denkansatz in der griechischen Sophistik*, 1978, 34-35, 52, 110, 131 ss

21 J.A. Minguez-en itzulpenaren arabera aipatzen dira pasarteok, ik. PLATON, *Obras Completas*, 1981 (Ed. Aguilar), 687

22 Sarrera txit polita, KOYRE, A., *Introducción a la lectura de Platón*, 1966, 97 ss

23 NESTLE, W., *Historia del espíritu griego*, 1981, 113 ss

24 Ik. Ib., 142, Kritiaren ondoko esplikazioa erlijioaren jatorriaz:

"En los antiguos tiempos era la vida de los hombres horra de todo orden e igual a la del animal: dominaba la fuerza, y ni el bueno hallaba premio ni castigo el soberbio.

... "Lo justo no es otra cosa que lo que conviene al más fuerte. ¿No sabes, acaso, que unas ciudades son gobernadas tiránicamente, otras de manera democrática y otras, en fin, por una aristocracia? ¿Y no ejerce el gobierno en cada ciudad el que en ella posee la fuerza? Por tanto, cada Gobierno establece las leyes según lo que a él conviene: la democracia, de manera democrática; la tiranía, tiránicamente, y así todos los demás. Una vez establecidas estas leyes, declaran que es justo para los gobernados lo que solo a los que mandan conviene, y al que de esto se aparta lo castigan como contraventor de las leyes y de la justicia. Lo que yo digo, mi buen amigo, que es igualmente justo en todas las ciudades, es lo que conviene para el que detenta el poder, o lo que es lo mismo, para el que manda; de modo que para todo hombre que discurre rectamente, lo justo es siempre lo mismo: lo que conviene para el más fuerte"

"Porque piensas que los pastores o los boyeros miran por el bien de las ovejas o de las vacas, y las ceban y cuidan de ellas tendiendo a otro fin que no sea la conveniencia de sus dueños o la de sí mismos, y que, igualmente, los gobernantes en las ciudades, los que de verdad gobiernan, tienen una idea respecto de sus súbditos, y otra con relación al modo de gobernar sus ovejas, así como que examinan de día y de noche otra cosa que no sea la consecución de su provecho personal. Estás tan lejos de llegar al conocimiento de lo justo y de la justicia y de lo injusto y de la injusticia, que no sabes que la justicia y lo justo es en realidad un bien extraño, conveniente para el más fuerte y para el gobernante, familiar y perjudicial para el que vive sometido y obedece órdenes, y que la injusticia es lo contrario y ejerce el gobierno sobre los verdaderamente sencillos y justos, pues son los gobernados los que realizan lo que conviene al más fuerte y le hacen feliz prestándole su servicio, sin que de ningún modo se beneficien a sí mismos. Así, inocente Sócrates, hay que considerar las cosas: siempre y en todas partes sale peor parado el hombre justo. En primer lugar, en las relaciones mutuas, cuando uno entra en comunidad con otro, nunca hallarás que al disolverse la sociedad el justo posea más que el injusto, sino menos.

(Jarraipena) Luego, según me parece, se crearon las leyes con castigo, para que sobre todos domine igual el derecho y encadene al crimen. El que cometía un delito encontraba ahora castigo. Pero como la ley impedía ahora al hombre cometer violencia, como antes, a la luz, el crimen se sumió y reptó en la oscuridad. Entonces, me parece, un hombre astuto y prudente inventó para los mortales el temor a los dioses. Tenía que haber un terror para el malo, aunque la acción, la palabra y el pensamiento fueran secretos. Así pues introdujo aquel hombre la religión: «Hay un ser feliz en vida eterna, cuyo espíritu oye, ve y está lleno de sabiduría, atiende a todo y es divino por naturaleza. Oye toda palabra que hablan los hombres, y ninguna acción se esconde a su mirada. Aunque pienses el mal sólo en el silencio, los dioses lo observan; pues su sabiduría es superior». Con estos discursos introdujo la más fina de todas las doctrinas, encubriendo la verdad con la mentira de las palabras. Y luego indicó como vivienda de los dioses el lugar cuyo nombre más tenía que aterrar a los hombres. Pues desde allí —así lo sabía él— llega lo que más les asusta y lo que también favorece su pobre vida: de la alta bóveda —así lo vio— tiembla hasta la tierra el rayo y suena tremendamente el trueno, allí está la tienda del cielo, bordada de estrellas, obra magnífica del tiempo, de la sabia maestra. Allí camina claro el Sol cegador. De allí fluye a la Tierra la humedad. Con esos terrores supo subyugar el ánimo de los hombres; astuta y oportunamente atribuyó a la divinidad aquella habitación. Y así pudo imponerse la ley. Tal es, creo, cómo un hombre astuto y prudente aportó una vez al mundo la creencia en los dioses".

Luego, en los asuntos públicos, cuando hay que satisfacer algunas contribuciones, es el justo, aún con los mismos bienes, el que tributa más y menos el injusto; pero cuando se trata de recibir, el primero no obtiene ganancia alguna, y grande en cambio el segundo. Y cuando uno de los dos se hace cargo del gobierno, le ocurre al justo, si no otra pena mayor, el que sus asuntos domésticos queden por completo abandonados, al no poder obtener beneficio de la cosa pública por ser justo, y además el verse aborrecido por sus parientes y amigos, que no le perdonarán el no haberles procurado ayuda por no violentar la justicia; al injusto, sin embargo, le acontece exactamente todo lo contrario. Y al decir esto, me refiero al que antes nombraba, es decir, al que disfruta de un gran poder; considérale con atención, si quieres llegar a discernir cuánto más le conviene, por su propio interés, ser injusto que justo. Y lo conocerás todavía mejor si tu punto de vista se fija en la injusticia extrema, la que hace más feliz al más injusto, y más desgraciados a los que padecen la injusticia y son incapaces de cometerla. No otra cosa es la tiranía, que arrebató lo ajeno, furtiva o descaradamente, sin consideración a su carácter sagrado o profano, privado o público, y no llevándose en pequeñas partes, sino en su totalidad. Cuando alguno es cogido in fraganti por haber cometido fraudes análogos, entonces se le castiga y recibe los mayores denuestos, porque se le llama sacrílegos, mercaderes, horadores de paredes, despojadores y ladrones a todos aquellos que faltan a la justicia de alguna manera. Pero si alguien además de las riquezas de los ciudadanos, los somete y los reduce a la esclavitud a ellos mismos, es llamado dichoso y feliz en lugar de aplicarle esos nombres deshonorosos, y no solo por los ciudadanos, sino incluso por cuantos tienen conocimiento de la plena realización de su injusticia; ya que quienes reprochan la injusticia no lo hacen porque teman cometerla, sino por miedo a sufrirla. Y así, Sócrates, la injusticia, llevada a su punto máximo, es más fuerte, más libre y más poderosa que la justicia, y, como decía al principio, lo justo resulta ser lo que conviene al más fuerte, y lo injusto, en cambio, lo ventajoso y conveniente para uno mismo".

Trasimako-ri egozten zaion esakun zuhur baten arabera "traizioak ez du inoiz garaitzen. Zergatik? Garaituz gero, inork ez diolako traizioa deitzen". Garaileak (nagusiak) moral soziala ezezik, hizkera bera arautzen du.

Trasimakoren alboan, ekar dezagun Kalikle, planteamenduan abiapuntu kontrariotik abiatu arren (ahulak eta gehienak dira legeak egiten dituztenak: demokrazia "populista" batean gaude), berdin balio bait digu Nietzsche-rentzat. Hona hemen, nola arrazoitzen duen *Gorgia*-k elkarrizketan:

